



5.-Catalina de Atucha Usánsolo

5.1.-Hortún Ochoa de Guerra

IBARRA - Dima

Zeberrioko udalerriko artxibo historikoan izan ginen garaietan, Pedro de Leguineche eskribauaren paperetan, besteak beste, honako agiri hau aurkitu genuen:

En la casa y torre de Arançaçu que es en la merindad de Arratia, a veinte y seis dias del mes de marzo de mill e quinientos e setenta e dos años, en presencia de my P^o de Leguinaeche... parescio presente dona Mari Ybanes de Vsunsolo viuda, mujer que fue e quedo de Pero Vrtiz de Atucha defunto, que hera vezino de la anteyglesia de Arançaçu, por si y en nombre de e como madre legitima e tutora matriz de **Mari Ybanes y Antona de Atucha**, sus hijas legitimas e del dho Pero Vrtiz de Atucha, su marido, por virtud de la tutela... e usando de el dixo que daba e dio todo su poder cumplido bastante como lo tiene y de derecho mas puede y debe valer... y general administraci3n a **Hurtun O^a de Guerra su hyerno**, vezino de la anteiglesia de Dima, que presente estaba, para que en su nombre de ella e de dhas menores... pueda pedir e demandar... (ZUA_03_Leginetxe_1572_03).

Mari Ibáñez de Usansoloren suhi izan genuen **Hortún Ochoa de Guerraren** berri bilatzen hasi eta ikerketak Dimara bidean jarri gintuen, bertan azaltzen baitzitzaizkigun hainbat Guerra, *Ibarra* eta *Azcuenaga* oinetxeei lotuak.

5.1.1.-Dimako Gojenolatarren arteko auziak

Gojenola etxaldearen jabetzari buruzko auzia jarri zion delako Pedro de Gojenola dimatarrak Catalina de Aranguren, Francisco de Gojenolaren alargunari XVII mendearen hasieran. Auzi horretako kontakizunean, zentsu batzu direla eta, honakoa aurkitu dugu:

E porraçon de que con el dho P^o de Gonjenola auian fenesçido quantas en rraçon de çiento y quarenta ducados de zenso prinçipal que el dho P^o de Gojenola tenia fundado sobre **Hurtun Ochoa de Guerra e Ybarra y dona Catalina de Atucha e Ybarra su muger** cuya paga de los dhos çiento y quarenta ducados y los rreditos de quatro años que heran quarenta ducados heran a cargo de dar e pagar a el **dho liçençiado Ynigo Vrtiz de Atucha como dueño y señor de la mitad de la torre y solar de Ybarra** en que sobre ello y otras quantas que entre ellos tenian auian otorgado escrituras y Cartas de pago en presencia de mi el dho escriuano en que el uno del otro y el otro del otro quedauan satisfechos... (BFAAH-JCR0738/015)

5.1.2.-Dimako Patronazgoaren errentak. 1600eko auzia

Eskuartean erabili dugun agirietako batean azaltzen da delako Hortún Ochoa de Guerra hau Dimako *Ibarra* oinetzekoa dugula. Auzi bat da, Dimako Patroi den Ortuño de Urizar eta hainbat jabedunen artekoa, ordaindu ohi zituzten-dituzten errentak Patroiarenak ziren erabaki behar duena (BFAAH-AJ01423/061):

Lo quarto porque en quanto al dicho Pedro de Guerra Ybarra y Maria Sanz de yragorri demas de su propia confession, en que declaran auer dado a çenso los bienes que poseen Martin Ruiz de Auendaño a **Ortun Ochoa de Guerra Ybarra**, su antecessor, esta presentada la misma escritura



de censo... y un testigo presentado por el dicho P^o de Ybarra ... en el fin dize que le parece que el censo que pagaua la cassa de Ybarra a los poseedores de la casa de *Vrquiça* era como a patronos de Dima = y en el pleito criminal que se trato ante el Corregidor de Vizcaya, ano de 1550, entre Ochoa Ortiz de Guerra y Azcuenaga de la una parte y **Ortuño Ochoa de Guerra Ybarra**, padre de **Pedro de Guerra Ybarra**, que litiga, dicen ocho testigos presentados por el dicho Ochoa Ortiz de Guerra que el censo y tributo que pagauan los dueños de la cassa de Ybarra a la cassa de *Vrquiçu* era como patronos de la yglesia de Dima = y lo mismo consta por la visita del Sr D^{or} Suarez de Toledo del año de 1569, que se rrefiere en el mismo num^o 30; y en quanto a la casa de *Texerina*, ay un testigo presentado por Min de Mena, poseedor desta casa, que diçe contra el de oydas de veinte años que el sitio de las dichas casas y casserias de *Texerina* y pertenecidos della fueron de la dicha yglesia de St P^o de Dima y su patronazgo...; y en quanto a la casa de *Azcuenaga* que tiene P^o Ortiz de Guerra¹, dicen contra el seis testigos suyos los tres que son Martin de Vizcarguenaga, Martin de Orea, P^o de Beitia, que por las heredades que lleua de la hermita de *Azcuenaga* paga 208 mrs de tributo y que se las dio Martin Ruiz de Auendaño, patron de la yglesia de Dima...

Agiri honetan erakusten zaigu, bestalde, Hortún Ochoa honen seme dugula Pedro de Guerra Ibarra bat, aitaren oinordekoa.

5.2.-Catalina de Atucha (Usansolo) Ibarra

Ibarra oinetxeko Hortún Ochoa de Guerraren emaztea aurkezteko tenorea heldu zaigu, 3.1.1. atalean azaldu berri zaiguna: **Catalina de Atucha Usansolo**, Pedro Ortiz de Atucha eta Mari Ibáñez de Usansoloren alaba, aurreko atalean aurkeztu dugun María Iñiguez de Atucha Usansoloren ahizpa:

En la Casa e solar de Vgarte, que es en la Anteyglesia de Santa Maria de Castillo, a veinte e seis dias del mes de mill e seisçientos e diez y seis años², por testimonio de mi Pedro Ortiz de Guerra y Axcuena escriuano publico del Rey nuestro señor y testigos, pareçieron presentes Martin rruiz de Elguezua, escriuano publico de el rrey nuestro señor, por si mesmo como marido legitimo de doña Maria ybañez de Guerra Ybarra su legitima mujer, e **Pedro de Guerra Ybarra**, como hixo legitimo y heredero universal con venefiçio de ynbenario que quedo de doña **Catalina de Atucha e Ybarra**, su madre, vecinos de las Anteyglesias de Santa Maria de Yurre e San Pedro de Dima (BFAAH-JCR1884/006).

Hainbat eta hainbatetan gertatu ohi bezala, Catalina de Atuchak ezkondu den oinetxearen izena itsatsiko dio bere abizenari, ezkonduz gero **Catalina de Atucha Ibarra** izenez ezagutzera pasatuz.

Honela, bada, Dimako *Ibarra* oinetxeko Hortún Ochoa de Guerrarekin ezkondu zen Catalina de Atucha eta Pedro de Guerra Ibarra izan zen euren oinordekoa.

¹ Pedro Ortiz de Guerra Azcuenaga eskribaua zen garai haietan (BFAAH-SALAZAR 2504-001-004).

² Horrela azaltzen da agiria, hilerik gabe. Egia da, ordea, Foru Aldundiko Fitxategiaren aurkitzailean, agiri honi dagokion fitxan “el veintiséis de abril de 1616...” dugula.



5.3.-María Ibáñez de Guerra Atucha

ELGETZU – Igorre

5.3.1.-Igorreko Elgetzu oinetxea

Hortún de Ochoa eta Catalinak, Diman bertaratuko den Pedro de Guerra (Atucha) Ibarra oinordekoa ez ezik, andrazko ondorengo bat ere izango dute, **María Ibáñez de Guerra (Atucha) Ibarra**, Igorreko *Elgetzu* oinetxera ezkonduko dena.

Elgetzu Igorreko oinetxeetako bat dugu, beste askoren gisa bere gorabeherak izan dituen, hartu ez beharreko erabakiak hartu eta hainbat auzitan murgildua aurkituko dena kontakizun honen garaietan.

Martin Ruiz de Abendaño Elguezua izan da oinetxe eta onibarren jabe. Martin hau, lehen ezkontzan, *Olaso* oinetxe nagusiko alaba izan zen Isabel de Gamboarekin ezkondu da.

Ez omen dute seme-alabarik izan eta, nola eta zergaitik ez dakigula, bigarren ezkondu da Martin Ruiz. Bigarren ezkontza honetako alaba dugu Joana (Abendaño) de Elguezua. Joanak kontatzen du bere testamentuan Martin Ruiz aitak eta Isabel de Gamboak, seme-alabarik izan ez zutelako edo, behar ez zituzten despendio asko egin zituztela:

Yten Digo yo la dha testadora que el dho Mrn Ruyz de Avendaño y Elguezua mi padre estuvo casado con doña Ysabel de Ganboa, hija de la Cassa y solar de Palazio de Olaso, y como del dho su matrimonio no tuvieron hijos lejitimos, y a mi la dha testadora me hubo del segundo matrimonio, al dho Martin Ruyz mi señor padre y la dha señora doña Ysabel de Ganboa considerando que no tenian hijos del dho su matrimonio, y seyendo benedita la dha señora doña Ysabel a esta dha mi cassa y solar delguezua en gran perjuicio de esta dha mi cassa y los subzesores de ella, vendieron asi los ante dhos vienes de *Vbegia* con los dhos sus terminos, como la dha su torre y solar de *Vgartezar* y sus pertenecidos, y la dha cassa de *Rementeria* y otros muchos bienes y eredades, robredales y devisas y onores pertenecientes a esta dha mi Cassa y solar, en gran perjuicio y dezonor en mucho menos precio en muchisima cantidad, con lesion ynormisima y fraude que ynterbino en la benta de todos los dhos bienes... (BFAAH-SALAZAR 2504/001/004).



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Joana hau Diego de Basozabalekin ezkonduko da eta lau seme-alaba izango dituzte: María Ochoa, Martín Ruiz, Joana eta Lucía. Oinordeko izendatuko duten Martín Ruiz semearekin ezkontzera dator, Dimako *Ibarra* oinetxetik, **María Ibáñez de Guerra Ibarra Atucha**.

*5.3.1.1.-Joana de Elguezua*ren testamentua (*ibid.*)

Testamentua 1605eko urriak lauan eman zuen, Pedro Ortiz de Guerra Azcuenaga eskribaua dela fede-emaila. Testamentuaren buruan “*Binculo que se dize de Elgucua*” ageri zaigu.

Joanak eskatzen du bera hiltzen denean bere gorpua Igorreko elizan duten hilobi nagusian³ lurperatua izan dadin, bere senarra dagoen tokian.

Diego senarrarekin batean dituen zorren berri ematen digu:

- Laurehun eta laurogei dukateko obligazio bat zuten Juan de Abendaño Ubirichagarekiko, eta ehun eta berrogeita zazpi dizkiote zor.
- Galdakaoko elizako apaiz presbitero den Santiago de Abendañori, ehun dukat: berrogeita hamar senarra kartzelatik atera zuten garaikoak eta gainontzeko berrogeita hamar Juan de Abendañori ordaintzeko jasoak.
- Euren alaba María Ochoa de Elguezua Galdakaoko Juan de Careagarekin ezkondu zenean, honen aita Martini agindu zizkioten ehun dukat.

Testamentuan esaten du alaba Joana de Elguezua, Diego eta bien baimenik gabe ezkondu zela Martín de Amorrostarekin. Alaba bat izan zutela, Mari Miguel, egun bi urteko dena. Joana duela bost bat hilabete hil da. Joanak, bere iloba ezkontzen denerako, ez lehenago, berrogeita hamar dukat agintzen dizkio.

Euren alaba gaztea ere azaltzen da testamentuan, Lucía de Elguezua. Joanak agintzen du bere osaba den Santiago de Abendañok ehun dukat eman diezazkion legitima gisa.

Legatuok eginda, **Elgetzuko errota**k dakartza testamentura. Joanak dio errotok bereak dituela, *Elgetzu* oinetxeari dagozkiola. Kontua da, egun, Juan Sáenz de Cirarruista zenaren **Mari Ibáñez de Atucha** alarguntsaren eskuetan daudela. Izan ere, Pedro Ortiz de Atuchak erosi zituen bere egunean, ehun eta berrogeita hamar dukaten truke. Eta, agidanez, Mari Ibáñez alabak jarauntsi zituen⁴. Testamentu honetan agintzen du errotok berreskura ditzan jaraunsleak.

³ “... en la fuessa principal donde el dho Diego de Basosual esta enterrado, que la dha fuessa principal con otras que tenemos son mias y pertenecientes a esta mi cassa y solar de Elguesua...” (*ibid.*)

⁴ Hona, lehenik, Pedro Ortiz de Atucha Alcibarren oinibarren inbentarioa, bere emazteak eskatua 1572an. Ataltxo honetan, dagozkion erroten informazioa:

Yten puso por ynventario los **molinos que son junto a Santa Luçia de Elgüeçua**, que hubieron por bia de compra por ciento setenta ducs. E asi bien el dho Pero Vrtiz en su bida hubo puesto en machuras de los dhos molinos cinquenta ducs e asi bien le devian los vendedores algunas cantidades de rrentas de los dhos molinos como lo tenga declarado por su testamento – y por el **dho testamento** hubo mandado que si los vendedores de los dhos molinos diese e pagasen dentro de dos años dozientos e veinte ducados se les devolviesen los dhos molinos.



Are, **Ubegiko errota** ere azaltzen dira:

Yten digo que asimismo me pertenezzen a mi la dha testadora, como a dueña y señora que soy de esta dha mi Cassa y solar de Elguesua y de sus pertenecidos y bienes, **los molinos de Vbegui**, con su sitio y pertenesidos a los dhos molinos, que estan asi mismo en poder de la dha doña **Mari Ybañez de Atucha**, viuda, por duzientos ducados. Por tanto, mando y es mi boluntad que a la dha doña Mari Ybañez de Atucha se le den y paguen los dhos duzientos ducados, que los dhos *molinos de Vbegui* con todo el sitio y pertenesidos y tierras de pan senbrar y nocedales y rrobredales pertenecientes a los dhos molinos, segun y de la manera que fueron enajenados de esta dha mi Cassa y solar por mis antecesores de la dha casa a Mari Ybañez, en cuyo poder estan los dhos molinos, por quanto son mios propios y me pertenezzen los dhos molinos, juntamente con el dho sitio y tierra de pan senbrar, y los demas anejos a los dhos molinos. Lo qual asi testo y mando se cumpla.

Igorreko **Ugartezar dorrea** dakar Joanak jarraian testamentura. Kontatzen duenez, hirurehun dukaten truke zioten saldua eta bahian emana Hernando de Ocerini. Egun, honen suhi Martín Ruiz de Gortazar Billelaren⁵ eskuetan dago eta Joanak eskatzen du zorrak kitatu eta dorrea berreskura dezan oinordekoak.

Baita, Igorren bertan, **Ugarteko Errementerietxea**. Garai batean, Juan de Ugarte delakoaren eskuetan gelditu zen; harengandik Juan Sáñez de Solaguren oinordekoaren eskuetara eta, honenetatik jarraiko oinordekoarenetara pasatu da. Etxe hau ere berrezkura dadin eskatzen du Joanak testamentuan.

Yten puso por ynventario los otros **molinos de Ubegua**, los cuales fueron del liçençiado Olazabal y los hubieron de los administradores de la dha capilla - conque pagasen doze ducados de por año, los cuales doze ducs el dho Pero Vrtiz hubo puesto en censo para la dha Capilla en Diego de Elexabeitia de Ybarra e Pº de Arançaçugoitia y Hernando de Mymenza, como los tenjia declarados en el dho testamento (ZUA_03_Leginetxe_1572).

Hona, bigarrenez, María Ibáñez de Atucharen jabegoa egiaztatzen duen agiri bat:

En la Casa y torre de Arançaçu que es en la merindad de Arratia, a **veinte y ocho dias del mes de febrero de mill e quinientos y setenta y seis años**, por testimonio de mi Pº de Leguinaeche, escriuano de su magd y testigos de yuso contenidos, Myn de Çamudio, vezino de la anteiglesia de Arançaçu, como curador que es de **Mariybanes de Atucha**, **hija de Pº Vrtiz de Atucha e doña Mariybanes de Usunsolo, su mujer**, defuntos, arrendo e dio en rrenta a Mrn Ysasa bea, vezino de la anteyglesia de Yurre, que esta presente, **los molinos de Ubegua de Elguezua**, que son de la dha menora, por tiempo y plazo de dos años cunplidos primeros venideros, que comenzaron a correr desde el dia de Nra Señora----- pasado presente----- de myll e quinientos setenta y seis años, pagado la rrenta del dho molino con que... (ZUA_03_Leginetxe_1576).

⁵ Martín Ruiz de Gortazar Billela (1540-1608) María Ibáñez de Ocerin Sáñez de Castillorekin ezkondu zen Gaztelu-Elexabeitin 1565 aldera.



Elgetzuko binkuluaren sorrera

Testamentuaren une honetara helduta, Joana **Elgetzuko binkulua** sortzera doa. Horretarako, oinibarren berri ematen digu:

Yten Digo yo la dha testadora que, aceptando el poder y comision que me deyo el dho Diego de Basozual por ante el dho Martin de Eguia escribano, su fecha a zinco dias del mes de septiembre del año pasado de mill y quinientos y noventa y tres, declaro que al dho Diego de Basozual mi marido y a mi, la dha testadora, nos pertenez en propiedad y posesion esta nuestra Cassa y solar de *Elguesua* con todos sus pertenecidos, con la **Cassa nueva que al lado de la dha Cassa prinzipal tenemos fabricada en las tierras de pan coger** pertenecientes a la dha nra Casa y solar llamadas la heredad de *Zearra* y la de junto al molino y *Aldapea*; y las eredades de entre *Aldapea* y *Ayegui* y *Gasaminduy*; y los castañales de *Arzaranbasso* y de *Santa Luzia* y *Aguia* y *Chanporta*; y los rrobredales de *Arestuychea*, *Arestuy* y *Apegui Arespatorrega*, y los manzanales de *Chanporta*, y los que estan ensima y delante esta dha Cassa y solar, y delante esta dha Cassa; y el manzanal llamado *Ortuzarra*; y todos los nodedales y fruttas y fruttales anejos y pertenecientes a esta dha nuestra Cassa y solar de *Elguezua*; y la detras y tras de la dha Cassa y solar, que todos ellos son publicos y notorios en la dha anteyglesia de Yurre, donde estan sitios, con el siento somero que esta por la parte del Ebanjelio que tiene esta dha mi cassa y solar en la dha yglesia de Yurre, con las dhas dos sepulturas que asimesmo tenemos en la dha yglesia de Yurre, como de suso esta declarado en este dho mi testamento, con todos los demas bienes que estan enajenados juntamente con los dhos molinos, y todos los demas bienes de suso declaros en este dho mi testamento =

Y por quanto el dho Diego de Basozual mi marido me hubo comunicado en su vida para que **esta dha nuestra Cassa y solar de Elguezua, con todos los bienes a ella pertenecientes, esten vinculado de aqui en adelante por siempre jamas para que no se puedan bender ni enajenar, trocar ni cambiar en ningun tiempo de ninguna forma ni manera** porque ningun delito o delitos que los dueños y posehedores que fueren y subzedieren en la dha nuestra Cassa y solar de *Elguezua* dende la dacta de este testamento en adelante por siempre jamas yzieren y cometieren asi contra su Magd, lo que Dios nro señor no permita, que aunque sea en contra, crimen de erejia *lejentes estatis* u otro qualquier delito graue y ---- he ynormisimos por los quales y qualquiera de ellos merezcan ser poseydos y dezpojados de los dhos bienes =

Bere seme **Martín Ruiz de Elguezua** izendatzen du oinordeko; bera eta bere ondorea. Seme-alabarik utzi gabe hilko balitz, bere alabarik zaharrenari deitzen dio binkulo eta maiorazkora, María Ochoa de Elguezua eta ondoreari. Hauen faltan, Lucía de Elguezua alaba gazteenari eta ondoreari. Hauen faltan, Mari Ruiz de Amorrosta iloba eta ondoreari. Eta hauen faltan, anaia Martín Ruiz de Elguezua eta ondoreari.

Testamentuan Pedro de Abendaño, Indietan eraila, lehengusu propioa; eta Joana de Elguezua loba ere aipatzen ditu.

Testamentua hiruzpalau legaturekin bukatzen da.

5.3.2.-María Ibáñez en ezkontza kapitulazioak (BFAAH-JCR1884/006 eta BFAAH-SALAZAR 2504/001/004)

1616ko maiatzak 26an, Pedro Ortiz de Guerra Azcuenaga fede-emaila dela, Gaztelu-Elexabeitiko *Ugarte* oinetxean bildu dira Martín Ruiz de Basozabal Elguezua eskribaua eta Pedro de Guerra



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Ibarra. Lehena, María Ibáñez de Guerrarekin ezkondu dena, *Elgetzu* oinetxeko oinordekoa. Pedro de Guerra Ibarra, bestalde, bere arrebaren izenean azaltzen da.

Bi hauek adierazten dute zazpi kapituluko kapitulatu bat pasatu dela Martín Ruiz bera eta ama Joana, batetik; eta Catalina de Atucha, Santiago de Abendaño doktorea eta María Ibáñez de Atucha Ugarteren artean, bestetik.

Apartetxoko bat eginez, harrigarri iruditu beharko litzaioke irakurleari Joana bizirik aurkitzea testamentua eman eta hamaika urte beranduago... Sendatu egin zen, nonbait:

Lo tercero, aquel testamento en que se hizo el vinculo se reuoco por la misma doña Juana de Elguezua, la qual **hauiendo sanado de la enfermedad en que hizo el dho testamento** y tratado de casar al dicho Martin Ruiz su hijo, en quien hizo el dho mayorazgo, con la dha doña Maria Ybañez de Guerra Ybarra, le dono la dha Casa sin grauamen de vinculo y Mayorazgo... (BFAAH-SALAZAR 2504/001/015)

Kapitulatura itzulita, berau Martín Ruiz de Elguezua eta María Ibáñez de Guerra ezkon zitezen gauzatua zela diote, eta hura betetzeko Eliza Santuak agintzen duen gisara ezkonduak zirela. Kapitulatuan ezarria zegoela María Ibáñezek ekarri behar zituen dote eta ezkontza-horniak; eta honen ama Catalinak dote hau ordaindu behar zuen modua.

Eta kapitulatua bertan ezarria den legez bete dadin eta Catalina de Atuchak agindu zuen dotea ordaindu behar duen modua erabakitzeko, *Ugarten* bilduak zirela, aipatu María Ibáñez de Atucha eta Martín Íñiguez de Arespechuetarekin batean.

Kapitulatua erakusten dute:

Zazpi kapituluko agiri bat da. Aktoreak: Martín Ruiz de Elguezua eta bere ama Joana de Elguezua, batetik; eta Catalina de Atucha, Santiago de Abendaño doktorea eta Mari Ibáñez de Atucha Ugarte, bestetik. Sinatzaileen artean, jarraiko hauek ere ageri dira: Ortuño Abad de Guerra, Martín Íñiguez de Arespechuetak, Pedro de Zamudio, Juan de Abendaño Ubirichaga eta Pedro Sáenz de Cirarruista Ugarte.

Hona zazpi kapitulotan adosten dena:

1.-Martin Ruizek, gurasoen herentzia eta dohaintzari esker, *Elgetzuko oinetxea*, errotak eta lurrak dakartza ezkontzara.

2.-María Ibáñezi bederatziehun dukat agintzen dizkiote ama **Catalinak** eta hurrengo kapituluan azalduko zaigun izeba **Mari Ibáñez de Atuchak**; baita hainbat arropa ere.

3.-Abendaño doktorea, Mari Ibáñez de Atucha eta Martín Íñiguez de Arespechuetak ezartzen dituzten epeetarako ordainduko ditu bederatziehun dukatak Catalina amak.

4.-Ezkontza seme-alabarik gabe desegiten bada, eta badaude ere testamentua egin aurretik edo egin gabe hilko balira, parte bakoitzak ezkontzara ekarri duena eramango du. Mari Ibáñez bada aurretik hiltzen dena, orduan honek ekarria bere amari bueltatuko zaio, baldin eta bizi bada; horrela ez bada, amak testamenduan agindu duenari.



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

5.-Martín Ruiz de Elguezuak ezkontza gauzatuko dueneko berba ematen du; Mari Ibáñez en zenean, bere anaia Ortuño Abad de Guerrak ematen du.

6.-Martín Ruizen ama Joanak eman zuen testamentua eta bertan sortu zuen Elgetzuko binkulo eta maiorazkoa ezeztatzen ditu, bere seme Martín Ruizek ez ein lotura, karga, sumisio edo bihurtzerik gabe jaso dezan *Elgetzu* oinetxea. Eta, ohi bezala, gainontzeko seme-alabak herentziatik baztertzen ditu. Guzti hau gauzatzeko, eskribaurenean kontratua sinatzea erabaki eta bertan ezarritakoa beteko dutela agintzen dute. *Ibarra* oinetxean dago sinatua, lekuko direlarik Santiago de Abendaño doktorea, Medina de Pomarko Artzipreste eta Inkisizioko komisario; Pedro López de Zamudio, Lemoako Patroi; Juan de Abendaño Ubirichaga eta Pedro Sáenz de Cirarruista Ugarte.

7.-Joana eta seme Martín Ruizek adosten dute dote honetatik amak dituen zor eta obligazioak ordaindu beharko direla. Eta usufruktuaren erdia amarena izango dela bizi den artean. Eta altzari etaazienda bien artean bananduko dutela, Santiago de Abendaño doktoreak agintzen duen gisan.

Bestalde, Martín Ruiz de Elguezuak adierazten du berak jasoak zituela zortziehun dukat, hamaika erreal bakoitzeko, Catalina de Atucha Ibarra amaginarreba, María Ibáñez de Atucha eta Pedro de Guerra Ibarragandik. Beraz, ehun dukat besterik ez zituela jasotzeko. Eta agindutako arropak ere jasoak zituela; are, guztiez ordaindua ematen zela.

Martín Ruizek dio, kapitulatuaz beste, Pedro de Guerra Ibarrak lauhun erreal dizkiola zor.

Abendaño doktorea hil egin da, nonbait; Martín Íñiguez de Arespechueta eta María Ibáñez de Atuchak, bada, emana zitzaieen komisiua onartuz, agintzen dute Pedro de Guerra Ibarrak ehun dukat eta lauhun errealak modu honetan ordaindu behar dituela: bostehun erreal, eskritura honetatik urte betean; beste bostehun, urtebetegarrenean; eta gainontzeko bostehunak, hurrengo urtean hasita, hiru urtetan zehar.

Esan dugunez, *Ugarten* emana da akordioa. Lekukoak: Martín Ruiz de Billela Cirarruista, Dimakoa; Pedro Sáenz de Cirarruista eta Juan de Aldecoa, Gaztelukoa.

5.3.3.-Elgetzu oinetxearen salmenta judiziala (BFAAH-JCR1884/006)

Sumatu ahal izan dugu Joanaren testamentuan zehar hainbat eta hainbat zorretan sartua dela *Elgetzu* oinetxea. Testamentuan esaten digu garai batean bere senar Diego Bizkaitik kanpora izan zela (ez dakigu erbesteratua izan zelako edo...), kartzelan izan zela...

Historiaren gorpilak Zeanurira eraman du Diego de Basozabal, 1588ko uztailak 16an, adin txikiko María Ochoa de Alcibar lobaren tutoretza eta zaintza hartu baititu (BFAAH-SALAZAR 2504/001/015). Gauza da Diegok ez ziela aurre egin tutoretza eta zaintza horrek eragin zituen kontu eta ordainketei eta *Elgetzu* oinetxea zorretan sartu zela.



5.3.3.1.-1618an hasitako auzia (BFAAH-JCR1884/006)

Bilboko Justizia Ordinarioan hasi da auzia. Ohiko bideak eginda (Bizkaiko Korrejidorea eta Epaile Nagusia, Txanzilleriako Buru eta Entzuleak...) Valladolidera heldu da eta Felipe III Erregek Gutun Betearazlea eman du.

Hortuño de Guezala eta María Ochoa de Alcibar eta euren prokuradorea ditugu, batetik; Catalina de Zurinaga (Domingo de Zurinaga izan zenaren alarguntsa) eta María de Ibarondo (Martín de Ibarondo izan zenaren alarguntsa) eta euren prokuradorea, bestetik; eta Martín Ruiz de Elguezua eta María Ibáñez de Ibarra emaztea eta euren prokuradorea, besteak beste.

1618-06-08, Bilbao

Bizkaiko Korrejidoreak, Gutun Exekutiboa ikusita, demandatuen aurka egin diren kontuak ikusita, ontzat ematen ditu eta *Elgetzu*, *Zurinaga* eta *Ibarondo* oinetxeen ondasunen aurkako Agindu Betearazlea luza dadin agintzen du.

1618-06-19, exekuzioa *Elgetzu* oinetxe eta errotetan

Korrejidoreak izendatutako betetzalea azaldu da *Elgetzun* eta Martín Ruiz de Elguezuari eskatu dio exekuzioa egiteko ondasunak erakus diezazkion. Martín Ruizek erantzun dio ez duela aita Diegoren inongo ondasunik; bai *Elgetzu* oinetxeari dagozkionak. Betetzaleak, bada, oinetxearen lurretan eta biltzean dauden gari, arto eta sagar uztetan egiten du exekuzioa.

Egun berean, exekuzioa egiten du Diego eta Martín Ruiz de Elguezarenak diren bi errotarriko bi errotetan. Are, bi erroton errentari den Pedro de Langarari galdetzen dio zenbatekoa den ordaintzen duen alokairua. Honek erantzuten du urtean zortzi anega gari-irin eta hiru arto-irin ordaintzen dizkiola Martín Ruizi. Alokairu hura ere gordailutzan jartzen du betetzaleak.

1620-02-16. Errematea Igorreko hilerrian⁶

María Ochoa de Alcibarren neba Juanek, arrebaren izenean, honako salneurriak eskaintzen ditu: *Elgetzu* oinetxeko oinibar eta bi errotengatik, bostehun dukat. *Zurinaga* oinetxeko oinibarrengatik, ehun dukat. Martín Ibarondoren oinetxe eta oinibarrengatik, beste ehun dukat. Ez da beste inor agertu errematera.

1630-08-23. Behin betiko epaia

Epai honek 1621-07-21 eta 1625-12-17koak berresten ditu, eta Martín Ruiz de Elguezua eta gainontzeko demandatuak mila eta lauhun dukat ordaintzera derrigortzen ditu.

⁶ “En el çiminterio de la dicha yglesia de Yurre de la merindad de Arratia, oy dia domingo, despues de la proseçion de la misa mayor, en cruz parada, estando juntos la mayor parte de los veçinos de esta dicha anteyglesia...” (*ibid.*).



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

1621ekoan, esaterako, agintzen da *Elgetzu* oinetxe erdian egin dadin exekuzioa; are, *Elgetzuko* errotak exekuziotik kanpo gelditzen dira, epaileak esaten baitu ez direla Diego de Basozabalenak, emazte María Ibañez de Ibarrenak baizik.

1631. Ondasunak Hortuño de Guezalaren eskuetara pasatzen dira

Aurreko urteko epaiaren ondorioz, mila eta laurehun dukatak eskatzera azaldu dira *Elgetzun*, baina inork ez du dirurik eman. Orduan, exekuzioa egin da.

Hiru pregoi ematen dira: lehena Zeanurin, Iburguengo plazan, abuztuak 15ean. Bigarrena, Areatzako plazan, egun berean. Hirugarrena, Zeanuriko plazan, hurrengo egunean, abuztuak 16an.

Juan de Alcibarrek agintzen ditu mila eta laurehun dukatat, eta abuztuak 19an egiten da enkantea, Igorren:

... el dicho Juez executor... mande al dicho Pregonero los Remate en la persona que los tiene puesto por los mill y quatroçientos ducados, el qual Dixo en altas voces en presencia de mucha xente: mill y quatroçientos ducados dan por las Casas delguezua, Ybarrondo y Zurinaga y sus molinos y demas pertenecidos, ay quien puxe, ay quien de mas, que se aperziue el remate para luego incontinente = y visto que no ay persona que de mas de los dichos mill y quatroçientos ducados boluio a decir segunda vez, ay quien puxe, ay quien de mas a la una, a las dos, a la tercera que es buena y verdadera, pues que no ay quien puxe ni ay quien de mas, que buena por y buen prouecho agan las dichas Cassa y sus pertenecidos a Juan Ochoa de Alzaybar, que las tiene puestas en los dichos mill y quatroçientos ducados, elqual remate se hiço en la dicha yglesia a las dos dadas haltar (???) de poco mas o menos...

Abuztuak 20an, azkenik, Zulaibarren, Francisco de Fernández epaile eta betetzaille eta lekukoan aurrean, Juan de Ochoa Alcibarrek Hortuño de Guezalari ematen dizkio direlako ondasunak. Jarraian, agidanez, *Elgetzura* bertaratzen dira eta han jabetza ematen zaio Hortuñori:

E despues de lo suso dho, dicho dia mes y años dichos, en las *Casas y caseria delguezua*, yo el dicho Juez... meti por la mano al dicho Hortuño de Guesala en las dichas Casas, el qual entro en ellas paseandose, arrancando zerroxos, çerrando las puertas y echando fuera los que dentro estauan, e yo el dicho Juez dixele anparaua y anpare en la posesion de las dichas Casas y sus pertenecidos. Y luego incontinente, meti al suso dicho en *los molinos* tocantes y pertenecientes a las dichas casas, de que yo el dicho Juez doy fee estauan ynabitables y desmolidos, de forma que si no se haderezen y rreparen no pueden moler ni son de prouecho...

5.3.4.-Zeanuriko Ipiñazar oinetxeko Hortuño de Guezala

Diego de Basozabalen loba María Ochoa de Alcibarrekin ezkonduko da Zeanuriko Hortuño de Guezala⁷, aurrerantzean *Elgetzu*, *Zurinaga* eta *Ibarrondo* oinetxeen jabe gisa azalduko dena. Alaba bat izango du María Ochoarekin, María de Guezala Alcibar.

⁷ EE_AA_ekontzak_67016: Ortuño Guesala & Maria Ochoa Alçaybar, 1621-10-18, Areatza.



1634-01-16. Baso-sarien salmenta (BFAAH-SALAZAR 2504/001/010)

Hortuño de Guezala hiru oinetxeon jabe azaltzen den agiria. Hirurehun eta laurogeita hamar ikatz-kargari dagokion baso-saria saltzen dio Antonio de Guerra Azcuenagari:

En la Cassa y solar de Ubirichaga de la anteyglesia de yurre, a diez y seis dias del mes de enero de mill y seiscientos y treinta y quatro años, por testimonio de mi Jacobe de Barrauz, essno del rrey nro señor y publico del numero desta Merindad de Arratia y testigos abajo escritos, parecio presente Hortuño de Guessala, bezino de la anteiglesia de ceanuri, tenedor y poseedor de las Cassas y Casserias de Elgueçua y Çurinaga e ybarrondo, sitas en la dha anteyglesia de Yurre = Y dijo que por esta Carta y su tenor, y como de derecho mejor podia y debia, bendia y bedio a Antonio de Guerra y Axcuenaga, bezino de la dha anteyglesia de Yurre que presente estaba, el montazgo de treçientas y noventa cargas de carbon en rrama limpia que estaban sestreados y aberiguados en las dhas Cassa y pertenecidos de Elgueçua e Ybarrondo. Es a saber: en los montes de la dha Cassa de Elgueçua, trecientas y benynte cargas; y setenta cargas en los monttes de la dha Cassa de Ybarrondo, que suman los dhos trecientas y noventa cargas. Y como esta dicho, se los bendia y bendio para que los saque y cuerse durante este verano, para que dende en adelante no vayan ganando los montazgos para el dho otogano. Y se los bendia y bendio a precio de arreal y quartillo el montazgo de cada carga de carbon, segun y como juridicamente en virtud de comisi3n del señor Correjidor fueron rrematados en el dho Antonio : Y despues fueron setuados y averiguados a pedimiento del dho Ortuno de Guessala, segun mas estensamente constaria de los auto de su rraçon, que el dho Hortuño de Guessala lo deuia en su poder. Y confeso aber recibido la paga de todos los dhos monte y montazgo a rraçon de rreal y quartillo en dinero del dho Antonio de Guerra por el montazgo de la dha carga de carbon, de que se daba y dio por contento de la dha paga...

1665. Hortuño de Guezalaren testamentua

Hortuñok 1665eko abuztuaren hemeretziari, asteazkena, ematen du bere testamentua. Bertan irakur dezakegunez, *Ipiñazar* oinetxekoa dugu eta eskatzen du bere gorpua sendiak Andra Maria eliz-parrokian duen hilobian lurperatua izan dadin, bere guraso, aitita-amamak eta arbasoak lurperatuak direnean.

Marina de Arespehueta Zamudio⁸ emaztearekin izan dituen Ángela⁹ eta María Ascensión¹⁰ alabei, *Elgetzu* eta *Zurinaga* etxeetan izan behar dituen dukatetatik, bostehuna agintzen dizkie.

Ibarrondo oinetxekoek berrehun dukat eman dizkiote eskura; gainontzeko ehun eta berrogeita hamarrak epera. *Elgetzu* eta *Zurinaga* oinetxeen zorra besterik ez da, bada, gelditzen konpontzeko garai honetan.

Ángela de Bidosola Ipiñarekin ere ezkondu omen da, hirugarrenez¹¹. Izan ere, esaten du mila eta berrogeita hamar dukatetatik, bostehuna eman dizkiela Ángela eta María Ascensióni.

⁸ Rodrigo de Arespehueta Lemoako María Íñiguez/García de Zamudiorekin ezkondu zen; litekeena da hauen alaba izatea Marina hau.

⁹ *EE_AA_jaiotzak_1118082*: Angela Guesala Arespecueta, 1632-03-01, Zeanuri.

¹⁰ *EE_AA_jaiotzak_1117948, 1127452 eta 1128480*: Maria Guesala Arespecueta. Hiru Maria ditugu, 1630-09-24, 1633-03-14 eta 1638-05-13an jaiotak Zeanurin. Ematen du hiruretan bat baino ez zela bizirik izan Ortuñoren testamentu garaian.

¹¹ *EE_AA_ezkontzak_122624*: Hortuño Guesala & Ypina y Olarte Angela, 1645-02-04, Zeanuri.



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Gelditzen diren berrogeita hamarrak Catalina de Guezalari¹² eman diezazkioten agintzen du. Baita *Ibarrondo* oinetxean epera dituen ehun eta berrogeita hamar dukatak.



5.3.5.-Martín de Leguineche Elguezua

Martín de Leguineche Elguezua bere ama Catalinarekin azaldu zaigu azken auziotan. Martín, adierazia dugunez, Catalina de Elguezua eta Juan de Leguinecheren seme natural dugu.

5.3.5.1.-Catalina eta Martín, zorrak kitatzen

1668-08-01. Ordain-agiria

Catalina de Elguezua hirurehun eta bederatzi dukat eman dizkio Hortuño de Guezalari; honek ordain-agiria luzatzen dio. Beste hirurehun eta laurogeita hamaika dizkio zor.

Arratiako Merindadeko Alkatearen aurreko autoak (BFAAH-SALAZAR 2504/001/009)

Auto hauek falta diren hirurehun eta laurogeita hamaika dukatei buruzkoak dira, Arratiako Merindadeko Alkatearen aurrean aurkeztuak.

Aktoreak: Catalina de Elguezua alarguntsa batetik. Bestetik, Juan Francisco de Guezala, Zeanuriko apaiz eta onuraduna; Rodrigo de Guezala; María Ascensión de Guezala, eta bere izenean bere senar Rodrigo de Echebarria Aranguren; eta Ángela de Bildosola, Catalina de Guezalaren ama, tutore eta zaintzaile.

Catalinari agintzen zaio Rodrigo de Echebarriari hirurehun eta laurogeita hamaika dukatat ordain diezazkion; honek hala egiten du eta Foru Alkateak *Elgetzu* oinetxeak zor zituen zazpiehun

¹² "... a Cathalina de Guesala, que tengo del matrimonio de con doña Angela de Vildosola Ypiña...".
EE_AA_jaiotzak_1132120: Catalina Guesala Bildosola e Ypiña, 1661-05-14, Zeanuri.



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

dukatetatik libre uzten du. Are, ondorioz, Catalina de Elguezuari oinetxearen jabetza eman dakion agintzen du.

1671ko abenduak 19an gaude.

Catalina de Elguezuari oinetxearen jabetza ematen zaio (BFAAH-SALAZAR 2504/001/008)

1671eko abenduak 23an, *Elgetzu* oinetxea itzultzen zaio Catalina de Elguezuari, aste bete lehenago Hortuño de Guezalaren oinordeko ziren Rodrigo de Echebarria Aranguren eta María Ascensión Guezalak zazpiehun dukaten trukeko ordain-gutuna luzatu eta gero.

En la Casa y solar de Elguezua que es en esta dicha Anteyglesia de Yurre, a los dichos veinte y tres dias del mes de diciembre de mill y seisçientos y setenta y un años, ante mi el sobre dicho escriuano y testigos, el dicho Juan de Sologuren, fiel, de requerimiento de la dha doña Catalina de Elguezua para el baçio de la dha posesion, le metio en la dicha Casa de Elguezua, abriendo las puertas prinçipales della y desaforando a las personas que dentro abia, le hiço pasear en toda la dicha Casa haçiendola dueña de ella y que zerrase y abriese las puertas prinçipales y los de los aposentos de ella, y tomase las llaves de ssu çerraduras, como en efecto lo hiço la dicha doña Catalina. Y el dicho Juan de Sologuren asi bien la dio a la suso dicha un casco de texa diciendo que se lo daba a sus manos en señal de verdadera posesion, real actual *bel quasi* y que ninguna persona de qualquier calidad y condicion que se no se la perturben ni la pongan mala boz pena de sesenta mill marauedis en que desde luego les daba y dio por condenados para reparos de caminos y gastos de justicia desta dicha anteyglesia de Yurre sin remision alguna, a que se allaron por testigos los que se llevan asentado en el dho Requerimiento. Y la dha doña Catalina aceto la dha posesion. Y no firmaron por no sauer, y a rruego de ellos hiço un testigo, de que doy fee y lo firme = Antonio de Eguia = Ante mi, Joseph de Guesalaga (BFAAH-JCR1884/006).

Eguiatarrekiko zorra (BFAAH-SALAZAR 2504/001/007)

1671ko abenduak 19ko eskritura baten bidez, urte beteko epean, Domingo López de Eguiaren alarguntsa zen María San Juan de Galarzari hirurehun eta hamabost dukat itzultzera behartzen dira Catalina de Elguezua eta Martín de Leguineche semea.

1675eko uztailak 5ean, Joan de Eguiak, Domingo López eta María San Juanen semeak, aipatu diru kopuruari dagokion ordain-gutuna luzatzen die Catalina eta Martíni.

5.3.5.2.-Martín de Leguinecheren ezkontza kapitulazioak (BFAAH-SALAZAR 2504/001/016)

Kapitulazioak 1674ko martxoak 12an sinatzen dira, Igorren, Nicolás de Mena eta José de Guezalaga eskribauak fede-emaila direla.

Catalina de Elguezua dugu batetik, Martínen ama; bestetik, Alejo de Gortazar Billela, Martínekin ezkontzera doan Clara de Gortazar Billelaren neba, Bilbo eta Gaztelu-Elexabeitiko auzo.

Catalinak *Elgetzu* oinetxea ematen die seme eta erraingaiari, aldameneko etxe, dagozkien lur, eskubide, akzio, hilobi ezarleku etabarrekin. Beretzat gordeko du, bizi den artean, usufruktuaren erdia. Hilko denean, hileta-elizkizunak egin beharko dizkiote senar-emaztegaiek.



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Alejo, bestalde, dio bere arreba Clarak berrehun dukat dituela gurasoen legatu gisa aginduak. Eta berak, dotea gehiagotzekotan, bere ezkontzarako eta ez besterako, seihun dukat emango dizkio, lau hilaberen barruan. Baldintza bakarra jartzen du zortziehun dukatok arrebari eman aurretik: *Elgetzu* oinetxeak dituen zorrak kitatzeko erabili beharko dituztela.

Ezkontza seme-alabarik gabe desegiten bada, edo izanda ere testamenturik egin gabe desegino balitz, arrebari eskaintzen dizkion seihun dukatok Alejori berari edo ondorengoei itzuli beharko dizkiete ezkontza desegin ostean. Legatuko berrehun dukatekin, nahi duena egin ahal izango du Clara arrebak. Seme-alabarik izan gabe hilko balitz, eta euren ama María Ochoa de Barrenechea Gallano biziko balitz, azken honi itzuli beharko diote legatuko dirua. Zendua balitz, ordea, Alejo edo ondoreari.

Martín de Leguinechek dio onartzen duela kapitulazioetan ezartzen dela, eta zin egiten du Clara de Gortazar Billelarekin ezkonduko dela.

Kapitulazioak sinatzen dituztenen artean, Antonio de Guerra batxillerra eta Pedro de Azcuenaga apaiza, Igorreko elizako onuradunak; Martín Sáenz de Billela Gortazar Cirarruista kapitaina, Joan de Eguia eta José de Guerra azaltzen zaizkigu.

Hiru hilabete geroago, ekainak 18an, *Elgetzu* oinetxean, Catalina de Elguezua azalduko da, José de Guezalaga eskribaua fede-emaile dela, eta ezkontza gauzatu dela baieztatu eta agindutako oinetxea ematen die seme eta errainari.

Ontzak ematen du, bestalde, Alejo de Gortazarrek *Ibarrondo* oinetxeko alaba eta *Zurinaga* oinetxeko seme-alabei egin diezaikeen ordainketa, hala adostua baitute.

1704ko fogerazioak Igorren (BFAAH-AH05012/107)

Fogeraziotan, Martín de Leguineche dugu *Elgetzu* etxeko jabe:

“yten la **Casa de Elgueçua** perteneciente a Martin de Leguinaeche. Bibe en ella, entera”

1711ko irizpen bat (BFAAH-SALAZAR 2504/001/019)

Arteako Eliz Artxiboetan, 1711ko irailak 8ko data duen Petra Clara de Gortazarren heriotza-agiria dugu (*EE_AA_heriotzak_142720*). Petra Clara hau kontakizuneko gure Clara dugu. Martín de Leguinecherekiko ezkontzak ez die seme-alabarik eman, eta orain dotearen bihurtze, *Elgetzun* egin zituzten hobekuntza eta hainbat zorri buruzko irizpen bat ematen du Riba lizentziatuak.

5.3.5.3.-Elgetzuko errota

Aurkeztuak ditugu dagoeneko *Elgetzuko* errota eta *Ubegia* izenekoak. Agiririk zaharrena Pedro Ortiz de Atucha Alcibarren inbentarioa da, 1572koa. Gerora, ikusi dugu bere alaba María Ibáñez de Atucha Usansoloren eskuetan izan zirela eta Joana de Elguezua bere oinetxekotzat dituela.

Kontua da, auziotan ikus daitekeenez, Diego de Basozabalen zorrak bitarte, errota bat saldu egin dela, *Ubegia* izenekoak.

Ubegiako erroten alokairu-eskritura. 1623-03-02 (BFAAH-JCR1884/006)



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Elgetzu etxe goiko errotan emana da eskritura, aipatu datan. Alonso García Yagoren izenean dihardu San Pedro de Guerra Azcuenagak. Alonso García bilbotarra dugu eta honek salmenta-judizial batean erosi omen ditu *Elgetzuko* errotak. Pedro de Langarari alokatzen zaizkie urte beterako:

En el molino de susso perteneciente de la cassa de Elgueçua de la anteyglesia de Yurre, a dos dias del mes de março de mill y seiscientos y beynte y tres años, en presencia de mi San Juan de Mimença, escriuano de su Magestad y testigos, San Pedro de Guerra y Axcuenaga, vecino de la anteyglesia de Dima, dixo que en virtud de poder que tiene de Alonso Garcia Yago, vecino de la villa de Vilbao, que lo otorgo por testimonio de Francisco de Guinea, escriuano de su Magestad y del numero de la dicha villa, en ella, a veinte y siete dias del mes de febrero de mil y seiscientos y beynte y tres años... = arrendaba y arrendo en renta y por renta a Pedro de Langara menor en dias, vecino de la dha anteyglesia, los dos molinos de Elgueçua con todos sus pertenecidos, castañal, tierras de pan sembrar y huerta, y entradas y salidas del dho molino -que le pertenecen al dicho Alonso Garçia Yago por venta judicial despachada por el señor liçenciado Aluaro de Cadabal y Montenegro, juez por su Magestad, y en su virtud toda posesion en ellos- por espacio de un año que corre de la fecha de esta escritura, con que le de y pague al dho Alonso Garçia de renta en el dho año ocho anegas de arina de trigo y tres anegas de arina de borona en especie... = y el dicho Pedro de Langara, que presente estaba, dixo que aceptaba y acepto el dho arrendamiento de ssusso, y obligaba y obligo con su persona y bienes muebles y raices habidos y por haber a que dara y pagara la dha renta...

JCR1884/006 auzi honen ataletako batean, Juan de Alcívar azaltzen da, Antonia de Urizarren izenean diharduela. Antonia de Urizar hau Dimako *Urizar* oinetxekoa dugu, Ortuño de Urizar Españako Armadaren probeditzaile famatua izan zenaren alaba eta oinordeko. Errotok Urizar sendiarenak direla argudiatzen du Juan de Alcívarrek:

lo otro porque el dicho don Ortuño compro los dichos vienes por venta que le hiço el dho Alonso Garçia, y en virtud de ella a gozado la dha mi parte y su padre cada uno en su tiempo de mas de cinquentta años quieta y paçificamente, a vista y çiençia de la parte contraria y de sus autores...

Harrezkero, egunera arte, Urizartarren eskuetan izan dira *Ubegiako* errotak.

Santa Luziako errotak

Auzi honen garaietan, 1670-1679 inguruan, galdua da, dagoeneko, bigarren errota, bi errotarri zituen. Catalina de Elguezuari *Elgetzu* oinetxeko jabetza itzultzen zaionean, errota honena ere itzultzen zai. Hona jabetza-ekitaldia, oinetxea ematen zaion egun berekoa:

E luego incontinente dia, mes y año dichos, ante mi el dicho scriuano Juan de Sologuren, fiel, dio otra tal posesion que la rreferida de susso y esta otra parte a la dicha doña Catalina de Elguezua de las piezas y eredades de pan sembrar y manzanales, castañales y rrobredales, y en particular en las eredades de *rrota arteta* y su castañal, y sitio de dos moliendas que deçia la dha doña Catalina eran de su casa y solar de Elguezua, y en otras eredades llamadas *zearza apegui*, y en los montes llamados *arçaranbaso*, *arestuy celayeta* y *mendiguchi* y sus castañales, en boz y en nombre demás de sus bienes y señal de verdadera posesion, asi bien le entrego de sus manos a la suyas el dho Juan de Sologuren a la dha doña Catalina de Elguezua tierra de las eredades de pan sembrar referidas, rama de mançano y de arboles y castaño y demas frutos y frutales y puso las mismas penas...



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Auzi honetan lekuko desberdinak deitu dituzte frogantzak egiteko 1679 urtean. Badago, Martín de Leguinechek prestatu duen galdera-sortan, honela dioen bat:

5.-Si saben que los molinos sobre que es el pleyto referido que al presente estan demolidos y no tienen mas que las señales de molinos estan sitos en el termino llamado Santa Luçia de Elguesua y tienen por limites por la parte arriba **molinos de dicha doña Antonia de Vrizar**, y por el un lado nogales pertenecientes a la ermita de Santa Luçia, y por el otro y ondonado heredades de dha hermita y de las Casas de Langara, Çabala y Vgarietta.

Galdera honetan azaltzen diren Antonia de Urizarren errotak *Ubegiakoak* dira.

Pedro de Zuazo Urkiza lekukoak dio gaur eraitsiak diren errotok “*estauan en medio de la hermita de Santa Luçia y de los molinos de la casa de Vriçar*”.

Pedro de Isusorbe Iturbek ere antzeko zerbait dio:

5.-A la quinta pregunta dijo el testigo que se acuerda muy bien hauer visto una Cassa de molinos y pegante a el una heredad de pan sembrar y pedazo de castañal llamados de Elgueçua confinantes con la hermita de Santa Luçia, molinos de Uriçar y heredades de Ugarieta y Langara...

Finean, bada, bi errotok galdu ditu *Elgetzu* oinetxeak: *Ubegiakoak*, Antonia de Urizarren eskuetara pasatu direlako; *Santa Luziakoak*, eraitsiak izan direlako.

1745ko fogerazioak Igorren (BFAAH-AH05013/056)

Clara de Gortazar 1711n hil bada ere, *Elgetzuk* Gortazartarren eskuetan jarraituko du urtetan; ematen du, bestalde, errotak berreraikiak izan direla, nonbait:


Yt. otra llamada **Elguezua** de los herederos de don Domingo de Gortazar, ynquilino Juan de Bernaola.

Yt. otra **pegante a la susodicha** de los herederos del referido don Domingo de Gortazar, ynquilino Jph de Orosolo.

Yt. el **Molino llamado Santa Luzia** de los herederos de dho Gortazar, ynquilinio Miguel de Vnsaluartu.

1796ko fogerazioak Igorren (BFAAH-AH05014/007)

Molino de Tabaco errota, de don Josef Xavier de Gortazar, corriente y habitado, una foguera.



1799ko Lurralde estatistika Iborren (BFAAH-AH05001/006)

Nº 46

Nosotros Manuel de Echevarria, Emeterio de Amantegui y Antonio de Yturbe Ormaeche, inquilinos de las **dos casas de Elguezua y molino de Tabaco Errota** y sus pertenecidos, propios de don Josef Xavier de Gortazar, declaramos bajo de nro respectivo juramento que las dos primeras rinden anualmente en dinero 60 duados, y la tercera 45, que componen 1155 rrs, y en carbón de montes pertenecientes a dhas casda 900 rrs.

Son 2055 rrs.

5.3.6.-Elgetzu oinetxeko zuhaitz genealogikorantz

1.-Martín Ruiz de Abendaño Elguezua (& Isabel de Gamboa Olaso)¹³

2.1.-Joana de Abendaño Elguezua & Diego de Basozabal

2.1.1.-María Ochoa de Basozabal Elguezua & Juan de Careaga

2.1.2.-Martín Ruiz de Basozabal Elguezua & **María Ibáñez de Guerra Ibarra Atucha**

2.1.2.1.-Catalina de Basozabal Elguezua Guerra Ibarra // Juan de Leguineche¹⁴

¹³ Joana de Abendañok esan digunez, bere aita Martín Ruiz Olaso etxeko Isabel de Gamboarekin izan zen ezkondua; bera, aldiz, aitaren bigarren ezkontzako alaba dugu.

¹⁴ "Y si saben que **Juan de Leguinaeche**, vezino que fue de las anteiglesias de Amorebietta, y la dha doña **Catthalina de Basosabal y Elguesua**, siendo ambos libres y no suxetos a matrimonio ni religion alguna, y aceptos y abiles de poder contraer matrimonio entre si hubieron y procrearon por su **hijo natural al dho Mrn de Leguinaeche Basosabal y Elguesua**, y por tal hijo natural le rreconosieron, criaron y alimentaron y por tal fue y es abido y tenido comunmentte".

Auzi honetako beste atal batean, *Elgetzuko* errotei buruz ari direla, Pedro de Yurrebaso lekukoak dio Joan de Leguineche ezagutu zuela, Zornotzako auzotarra, "estando viudo y libre de matrimonio..." (BFAAH-JCR1884/006).



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Martín de Leguineche Basozabal Elguezua & Clara de Gortazar Galiano

2.1.3.-Joana de Basozabal Elguezua & Martín de Amorrosta

2.1.3.1.-Mari Miguel de Amorrosta Elguezua

2.1.4.-Lucía de Basozabal Elguezua

2.2.-Martín Ruiz de Abendaño Elguezua

2.2.1.-Joana de Elguezua